

# Enaren moduan itzuli dira Gari Berasaluzeren poema zaharrak Sergeren abesti berrietan

Eraso taldeko Sergek umetako lagun duen Berasaluzeren testuak baliatu ditu bakarkako lehen diskoa duen 'Enarak itzuli dira' lanerako

## :: NEREA AZURMENDI

**DONOSTIA.** Goitzxo omen da oraindik enarak itzultzeko. Ez omen da hala ere asko falta. Ordurako natura seko aldrebestu ez bada, hurrengo asteetan bueltatuko dira, abisurik gabe, eta inguruan biraka ditugunean konturatuko gara.

Gari Berasaluze idazleak eta Sergio Ruiz G. Txabarri musikariak partekatu duten 'Enarak itzuli dira' proiektuarekin ere horrelako zerbaite gertatu da. Musika eta literatura uztartzen dituen ekimena izenburua eta azaleko diseinua partekatzen dituzten liburu eta disko bannatan gauzatu da. Booktegik argitaratu du Berasaluzeren liburuak, eta autoekoitzia da Sergeren diskoa. Bihar bertan, martxoak 29, Zarauzko Garoa liburu-dendan hasita, hainbat errezitaldi ere eskainiko dituzte hurrengo asteetan.

Serge eta Gari Berasaluze aspaldiko lagunak dira, zarauztarrak, 1975an jaioak biak, umetan gelako 'artistak' izandakoak. 1999an Elkar argitaletxearen eskutik 'Azaro urrutetako intifadak' poema liburuak argitaratu zuenetik, beste hainbat ekarri ditu Berasaluzek, baina azken



Gari Berasaluze eta Sergio Ruiz G. Txabarri, atzo Donostian. :: LUSA

urteetan gehiago dabil komunikazioaren munduan literaturarenean baino. Azkeneko liburuak, 2017ko 'Kalaportutik', Berria egunkarian argitaratutako zutabeen bilduma da, Booktegik euskarri digitalean argitaratutakoa.

Lagunek Serge esaten dioten Sergio Ruiz G. Txabarri, berriz, ondo ezagutzen dute rock zaleek, bera baita 1996an Zarautzen sortutako Erasos! taldeko ahotsa eta gitarra. Bera-

saluzek aurreneko liburuak argitaratu zuen urte berean kaleratu zuten hain zuzen lehen diskoa, 'Erantzunik gabe' izenburua zuena. Harrezkerotik dozena erdi disko plazaratu ditu Erasos!-rekin. Azkena, 'Inoren hurretan' autoekotzia, iazkoa da. Osorekin ere badu beste disko bat.

Bazuen hala ere bakarkako lan intimistagoari ekiteko gogoak. Talderako berak egiten zituen letrak, baina bere kabuz aritzeko grina piztu

zitzaionean ikaskidearekin akordatu zen, gogoko zuelako «Gariren kutsua». Hala, orain dela pare bat urte, artean bakarkako diskoa proiektu zenean, poema batzuk eskatu zitkien Berasaluzeri.

## Poema berreskuratutak

Konpromiso ederrean jarri zuen laguna. Izan ere, MySpacen bizi osoko oroitzapenak galdu dituztenak ez dira galera digitalen aurreneko biktimak, ezta gutxiago ere. Gari Berasaluzeri ere antzeko zerbaite gertatu zitzaion, atzo Donostian Booktegiko Aritz Brantonekin batera bigileek egin zuten aurkezpenean azaldu zuenez.

Beraxek gogoratu bezala, sare sozialen aurrekari moduko bat izandako Fotolog-era eta Blogari-ko 'Malekoia'-ra igotzen zituen argazki, testu eta poemak, paperean gorde gabe, beka bat eskatzeko aukeratu zituenak izan ezik. Igotako poema ia guztiak Fotolog eta Blogari desagertutakoan galdu zituen. Beka ez zioten eman, baina bekarako hautatutako poemak kaja batean agertu ziren, etxe-aldaketaren batean. Haiexek eskaini zituzten Sergeri, 2004 eta 2010 urteen artean idatzitako 30etik gora poema.

«Inportantea diskoa da», esan zuen Gari Berasaluzek, iraganetik heldu diren eta, enarak bezala, ia ezustean berpiztuta itzuli diren poema horiek beste garai bateko kontuak balira bezala. Sergek zortzi aukeratu ditu abesti bilakatzeko, taldearekin landu duen rock gogorretik urrunduta bakarkako diskora eraman duen estilo akustikora izugarri ondo egokitzen direnak. Elkarri egin dioten oparia irakurleek eta entzuleek ere dasta dezakete. Liburuaren bertsio elektronikoa Booktegin dago; diskoa eta liburuak 7na euroan saltzen dira (12, batera erosiz gero), eta serge1975.bandcamp.com sarbide guttiz egokia da lanera hurbiltzeko.

'Sof  
Stal  
Ter  
kro  
eta

:: N  
DO  
ang  
bad  
esa  
gaz  
Tx  
fia  
be  
rie  
er  
ta  
h  
a